

## HARRESI GORRIAK

Antton Alberdi Estibaritz, 17 urte

*Elgoibar*

Hiri gorria deritze batzuek. Iluntzean eguzkiaren perfil obalatuaren islak harresietan sortzen duen argitasun magiko horregatik, akaso. Aukeren hiria deitzen diote beste batzuek. Basamortuko lautada eta mendialdeko amildegietatik etorritako artzain eta nekazariak hobeto biziko direlakoan, agian. Txirotasunaren oasizat dute beste hainbaketek. Guztiak Mohamed VI.aren altzoan aberasturik bizi direlakoan, apika. Hori da Marrakex, txirotasunetik at dagoen aukeren hiri gorria. Hale ote?

Izan ere, eguzkia basamortuko muino zakarren atzean ezkutatzean, hiriak metamorfoosi arraro bat pairatzen du. Kameleoien gisara, egunez, harearen kolorera moldatutako hiria beltz bihurtzen da, inork erasoko dion beldurrez edo. Ilargi hilak argitasunik apenas ematen duen kale estuetako zokoe-tan, eta hiritarrek lo egiten dute. Nekazari eta artzain guztiak kalean eskatzera behartua gertatzen direnean, hirian ez dago aukerarik, ilun dakusate etorkizuna. Aberasteko asmotan hirian plantatu

eta egunean sos pare bat irabazten dutenek ez dute oasi berde eta argirik bereizten basamortuko lautadetan; palmera ihartuak imajinatzen dituzte beren ametsetan, eta, esnatzean, eguzkiak ez ditu harresiak gorritz margotzen, harresiok urruti gelditzen direlako, beren asmo eta ahalbideetatik landa.

Marrakexen hiru milioi lagun "bizi" dira harresi metamorfosikozko eraztun baten barruan. Egunean errutina bera jarraitzen dute gehienek. Goizean goiz jaiki, lehen errezoak Mekara begira, gosalduek; ahal dutenek, zokoan denda ireki edo kale izkinako postua muntatu, bigarren errezoa Mekara begira, bazkalduek; sosen bat irabazi dutenek, hirugarren errezoa Mekara begira... Hala igitzen dute eguna, Mekatik zerbait etorriko zaien esperoan, edo agian ez, baina zer galtzen dute errezo horiengatik? Meskitetan lagunak bildu eta elkarrekin hitz egiten dute elkarri hitz erdirik ere esan gabe. Guztiek horma bati edo aurreko lagunaren oinei hitz egiten diete, baina gustura sentitzen dira, eta irribarretsu jaikitzen dira, zapata zapailduak jantzi eta meskitatik plaza nagusirako bidea hartzen dute.

Munduko plazarik famatuena da, akaso, Marrakexeko Jemaa l-Fna. Hiriaren metamorfosian parte hartzen dute hiritarrek, sinkronizaturik. Bertan, sugeak mugiarazten dituzte batzuek, tximuak dantzan jartzen beste hainbatek, gena-tintaz marrazkiak egin begiak ere ikusterik ez dakien emakume zahartuek... Baina horretaz guztiaz gain, hiriko agure zahar hizlariak, bastoia esku bate-

an, hanka hutsik, txilaba iluna eta turbante pisutsua soinean, istorioak kontatzen hasten dira, istorio miragarriak, antzinako istorioak, harresiak kolore gorri iraunkorra zutenekoak... Hiriko gazte eta ez hain gazteek atzetik jarraitzen diete plaza guztian zehar, txunditurik, lasteka, agureei ezin jarraika, eta harridura aurpegiak jartzen dituzte, eta negar egiten dute, eta barre egiten dute, eta batez ere, ongi pasatzen dute, eta harresiak zuriz margotzen dira, ilargi betearen isla harro erakutsiz, inongo harraparien beldur ez direla esanez, Marrakex ez delako hiri galdu bat, hiri triste bat. Eta hiritarrak egoera oso tamalgarrian bizi diren arren, errezoek, sugeek, tximinoek eta istorioek –batez ere, istorioek– bizia jartzen dute txirotasunaren eta gaixotasunaren gainetik, eta amets egiten dute.

Hala diote, urte asko dira neskatila xarmant bat bizi zela Marrakexeko etxe ilun eta kale estuen artean. Rasha zuen izena, itsasoa, bereberrentzat. Ez zuen, ordea, itsasoa ezagutzen, ez zuen hiriko harresi ilunetatik haratago zegoen ezer ezagutzen, ez baitzuen, ia, bere etxetik kanpo zegoen ezer ezagutzen. Gurasoekin bizi zen Marrakexeko ekialdeko kale kantoi batean zuten etxetxoan: bi pisu, 20 metro karratu, gehinez. Ama, beste hainbat eta hainbat emakume bezala, aitak prostituziora behartua zuen, etxerako dirua ekar zezan, hala, egunero, ogi zati bana eta zapore gabeko sopa batekin tripa bete zezaten. Askotan ogi oso bat ekartzen zuen etxera eta guztiek gogoz irensten

zituzten mami murtxikaezin haiek. Aitak, berriz, errezo egiten zuen, familia aurrera ateratzeko. Hura zuen ardura, egunean zazpi alditan meskitara joan eta Mekara begira errezatzea, amak, min gaziaren truke bazen ere, ogi bat baino gehiago ekar zezan etxera, eta berak zerri bat bezala irentsi zitzan janariaren lau bostenak. Alabak eskerrak ematen zizkion amari ogia ekartzeagatik, eta, askotan, hanka artetik behera zerion odola garbitzen laguntzen zion edota aurpegi inguruko isurki likatsua kentzen zion, maitasunez. Eta amak irribarre goxo batez erantzun eta besarkatu egiten zuen, eta biek lo hartzen zuten aita meskitatik iristen zen arte, ate-hotsarekin batera, jaiki eta zuten apurra-ekin afaria prestatzeari ekiteko.

Halakoa izaten zen eguneroko bizitza Marrakex ekialdeko etxe hartan, amak ezer ekartzen ez zuen egunak salbu. Iluntze haietan garrasiak eta oihuak entzuten zituen Rasha gazteak eskaileren goialdean, eta begiak gogor itxi, eta, belarriak ikaraz edo amorruz tapatuta, maindire zaharkituen barruan uzkuritzen zen eta negar egiten zuen lo hartu arte; amets egiten zuen, ondoren, eta malkoak aurpegitik zerizkiola esnatzen zen amaren musu sakonarekin.

—Egunon, Rasha, banoa lanera. Ez gaizki portatu gero aitarekin, e?

—Kaixo ama, zer moduz?

—Ondo laztana, arratsaldean egongo gara.

—Berriz ere musu eman, aurpegia ferekatu eta maindireak begietaraino jaso ondoren, etxetik irtezen zen atea poliki eta tentuz itxiz.

Egunsenti horietako batean, ohi bezala, amak musu eman eta bere ondoan eseri zen. Rashak amaren esku leunak igarri zituen bere lepoan igurtzika, suabe, emeki. Irribarre txiki batekin gorputza itzuli eta amaren tripa laztandu zuen, suabe, astiro.

–Ama, tripatxoa irteten ari zaizu! –Irribarrea handituz.

–Ez, Rasha, ez, zure irudimena da, egizu lo.

–Ama, baietz, benetan...

Txikiak amaren eskua heldu eta tripa igurtzi zuten biek, poliki. Amari, ordea, aurpegia aldatu zitzaion supituki eta maindireak begietara igo gabe, musu eman gabe, ohetik jaiki eta atea zabalik utzita irten zen. Alabak, maindireak begietaraino igo eta bere masaila maitekiro igurtzi zuen, amak legez, berriz ere lo hartu aurretik.

Arratsalde hartan ama ez zen atetik sartu. Alabak ez zion hanka arteko zikinkeriarik garbitu, ezta aurpegiko likido likatsua kendu ere. Eskailera zaharretatik goiko pisura igo eta, leiho txikitik aurpegia ateraz, mendebaldera begira jarri zen Rasha, amaren perfilaren figura ikusteko esperantzaz. Itzal luzeak besterik ez ziren mugitzen iluntzeko Marrakex hartan; amaren itzalik ez, ordea. Atearen golpe zakar batek moztu zuen Rasharen gogoeta.

–Hemen naiz, Rasha. Non dago ama? –Eskailera zaharretatik behera poliki jaisten hasi zen alaba.

–Non da ama? –Erantzunik ez.

–Ama non dagoen galdetu dizut! –Gogor, zakar. Sorbaldak uzurtu eta eskaileretan gora igo zen

korrika aitaren malefizioak urrunduz zihoazen bitartean.

Leiho txikitik begira paratu zen berriz ere, eta aita ikusi zuen kalean behera pauso bizian oinez. Ez zuen imajinatu ere egiten zein zen egoera, ez zuen pentsatzen ere jarri nahi zergatik zegoen aita hain haserre eta zergatik ama ez zen etxeratu. Berandu zen. Eguzkia bazihoan, eta hiria biluzik geldituko zen laster gaueko iluntasunari salduta.

Eguzkia, astiro-astiro, mendebaldeko muinoen atzean ezkutatuz joan zen, eta hiriko argi guztiak itzaliz. Rashari, dirdira egiten zuten argiño batzuetara alde egin zion bistak eta hipnotizatuta gelditu zen puntu haiei so. Argi bat desagertzean, esnatu eta beste bat bilatzen zuen, hala, guztiak itzali eta hiri guztia ilunpean gelditu zen arte. Loak hartu zuen.

Ate hots zakar batek esnatu zuen gaztea, eta beste argiñoren baten bila hasi zen urrunera begira. Baina guztia ilun zegoen, ez zen argirik irteten inguruko etxeetako leiho eta zirrikituetatik. Esku batek gogor eutsi zion besotik eta bultza egin zion eskaileretarantz.

—Joan zaitez ohera, Rasha!

Harridura eta beldur aurpegiarekin aitaren irudiari begira gelditu zen momentu batez. Ondoren, eskaileretan behera jaitsi zen korrika, amarekin estropezu egin zuen arte. Elkar besarkatu zuten, baina teinkada gogor batek ama eskaileretan gora eramane eta Rashari bultza egin zion. Eskailera gaineko atea itxi eta iluntasun osoan gelditu zen

neska gaztea. Hola-hala, erdi itsututa, eskuak hormari itsatsita, bere ohera iristea lortu zuen eta maindire artean ezkutatu zen, sugeak bezala, bere txokoan isolatu eta mundutik at zegoela imajinatzeko, amets egiteko; baina ezin izan zuen.

Aurreko egunetakoak baino oihu gogorragoak barneratu ziren Rasharen gorputzean. Ametsa zela sinestarazi nahi izan zion bere buruari, amesgaizto bat besterik ez zela, baina garrasiak ez ziren mututzen, eta izerditzen hasita zegoen gaztea, maindireak gorputzera itsasten hasiak, eta ezin zuen ia arnasa hartu. Zaratak isilduz joan ziren, eta gaztea maindireetara atxikirik lo gelditu zen, begiak gogor itxirik eta belarriak behatzekin tapatuta zituela. Intziriak amaitu ziren.

Biharamunean, arraro sentitu zen begiak irekitzearekin batera. Ez zuen amaren esku leuna bere lepoaldean sumatu, eta ez zuen ahots fin hura bere belarrien gozagarri sentitu. Guztiz bestelakoa izan zen sentsazioa. Ingurura begiratu, ez zegoen inor. Belarriak findu zituen, baina ez zen zaratarik entzuten, kalean zebiltzan lagunuen pausoak eta gurdien zaratez aparte. Arrotza egin zitzaion egunsenti hura, sekula ez bezain arraroa. Goiko pisura igo zen eta leihotik begira jarri, ea arrotzasan hura zerbait aldatzen zen jakiteko. Kanpoaldean bizitzak aurrera zerraien, haatik, aurreko egunetan bezala. Bere etxe barruan, ordea, gelditu egin zen denbora, han bakarrik, ez beste inon. Eguzkia irtena zegoen; itzalek hala salatzen zuten. Kaleak jendez betetzen hasita zeuden, azoka eguna izanik, normala.

Eskaileretan gora pauso hotsak entzun zituen. Burua jiratu eta aita ikusi zuen gelara sartzen, aurpegi tristearekin, zorigaitzen bat gertatu izan balitz bezala.

–Egunon, Rasha.

–Kaixo, aita, zer moduz?

–Gaizki, alaba. –Txikiak begiak ireki zituen eta adi aitari begira jarri..

–Non da ama? Gaur ez nau agurtu etxetik irtete-an...

–Ama joan egin da.

–Nora?

–Urrutira.

–Zergatik?

–Ez dakit. –Larritasun aurpegia jartzen hasi ziztaion Rashari.

–Eta noiz etorriko da?

–Ez dakit etorriko den ere... –Aitak besotik heldu eta leihatilara hurbildu ziren biak. –Ama hara joan da, mendiak eta zeruak elkarri esku ematen dioten lekura.

–Eta zer dago ba hor?

–Itsasoa, itsasoa dago han. Ur asko dago, pila bat. Oasi handi bat bezalakoa da. Hara joan da ama, bizitza hobe baten bila, hemen ez baitzegoen gustura.

–Baina zergatik joan da? Ez gaitu maite?

–Ez dakit, alaba, ez dut uste. Baina, zu lasai. Nik asko maite zaitut eta zurekin egongo naiz beti.

Lehenengo, malko bat isuri zitzaion gazteari, eta jarraian, beste hainbat erori ziren lasto eta buzti-



nezko teilatutxora. Aitak musu eman zion masailean eta eskaileretan behera joan zen. Bitartean, ortzimugara begira gelditu zen alaba, negar zotinka, ama zergatik joan zen pentsatzen. Pixkanaka, gorroto sentimendua barneratzen hasi zitzaion gorputzean, ez zuen ulertzen nola zitekeen ama batek bere familia horrela uztea, besterik gabe. Tristura-negarra amorru-negar bihurtu zen eta ezin izan zuen oihu egitea eragotzi.

Egun hartan ez zegoen bazkaltzeko ezer, ez zegoen urik apenas etxean, aitak, iritsi zenean, ondo azaldu zionez. Neskatzaren harridurarako aita ez zen bakarrik azaldu etxean, gizon lodikote batekin iritsi zen. Ezkaratzean elkartu ziren hirurak.

–Rasha, hau Ibrahim da. Agur ezazu!

Mesfidantza puntu batekin begiratu zion alabak gizon potoloari. Arraroa egiten zitzaion aita lagun batekin etxera joatea, sekula ez baitzuen halakorik egin. Hark begirada zorrotz eta lizunkoi batekin erantzun zion, irribarre maltzur lerdetsu bat ahoan.

–Hilabete osorako baduzue jatekoa.

Lodikoteak pauso bat aurrera eman eta besotik heldu zion gazteari, bortizki tiraz. Rashak askatu nahi izan zuen eta aitari begiratu zion, begiradarekin zerbait egin zezala eskatuz. Hura, ordea, beste aldera begiratu eta eskaileretan gora igo zen. Bien bitartean gizonak etxetik atera zuen neskatila erdi arrastaka. Garrasika hasi zen, amak jatekorik ekartzen ez zuen egunetan bezala, eta kalean pasatzen zen jendeari laguntza eskatu zion. Baina estatuak

ziren kalean oinez zihoazenak, ez entzun ez ikusi nahi ez zuten estatuak; inork ez zuen begirada pare bat metro aurrerago zuen zorutik altxatzen, eta askok beste alde batera zuzentzen zuten bista, ezer gertatuko ez balitz bezala.

Etxe handi baten parera iritsi zirenean, herrestan eramateari utzi zion gizon potoloak, eta, atea irekita, barrura bultza zion neska gazteari. Behin barruan, korridorearen eskumako aldean zegoen azkeneko gelara sartzeko agindua eman zion. Gizona astiro sartu zen gelan.

–Kendu arropa! –Neskak ez zion kasurik egin.

–Arropa kentzeko esan dizut edo bestela nik kendu beharko dizut!

Lodikoteak ematen zuen pauso bakoitzeko Rashak bi ematen zituen atzeraka, izuturik. Potoloak pauso neskatxa atzera, potoloak pauso, eta neskatxa ohe batekin trabatu eta etzanda gelditu zen, gauza handi hura gainera nola zetorkion ikaraz ikusiz. Harri bat bezain gogor gelditu zen uzkurturik eta begiak itxi zituen. Gizonaren indarraren kontra ez zuen zereginik, tirakadaz tirakada arropa guztia kendu zion eta biluzik laga zuen. Golpe gogor bat nabaritu zuen hanka artean, eta jarraian, gizonaren piso guztia sentitu zuen gainean. Ia arnasa hartu ere ezinda, beste kolpe bat nabaritu zuen, eta jarraian beste bat, eta beste bat, eta gizonaren esku zakarrak bularalde laua igurzten hasi ziren, eta ezin zen mugitu ere egin, eta garrasi egiten zuen, eta gizonak orroe egiten zuen, eta aurpegia miazkatu zion, eta mingaina aho txi-

kian barrena sartu zion, ia ito arte. Orduan zerbait arraroa sentitu zuen tripa aldearen barruko aldean eta gizonaren pisua bikoiztu egin zen. Ezin zuen arnasa hartu!

Begiak ireki zituenean biluzik zegoen ohe gainean. Odoleztatuta zuen hanka-arte guztia. Bakarrik sentitu zen, galduta; leku arrotz batean inguruari salduta, urduri. Lurrean begiztatu zituen bere arropak, izkina batean botata. Aitaren batean jantzi eta irteerako atearen bila hasi zen. Gelatik irteetan, ezezaguna zitzaion korridore luze bat ikusi zuen; kanpoaldera ematen zuen atea zuen hondotan. Korrika abiatu zen kanporantz, eta, behin etxetik at, lehen baino galduago sentitu zen umea. Malkoak zerizkion masailetatik behera, odola hanka-artetik behera. Ingurura begira zegoen, nora jo ez zekiela; inguruko guztiek, ordera, beren begiradak neskatzaren gorputz desitxuratuan jarzen zituzten.

Eguzkia itsaso aldean sartzen ari zen momentuan iritsi zen etxe aurrera. Beldurra sentitu zuen berriz ere. Ez zen gizon lodikotea etxean topatzeko beldur, aitaren beldur zen, ez baitzuen ogirik ekarri etxera, amak egiten zuen bezala. Negar zotinka, korrika sartu etxera, eta goiko pisuko bere leihotxora joan zen, eguzkiak Marrakexi azken igurtzia nola ematen zion miretsiz negar egitera.

Leioa ireki aurretik, bertako kristalean, amaren irudia ikusi zuen: ilea solte, zikin, aurpegia lardats, arropak apurturik, odola hanketan behera, triste, urduri, begirada galduta. Haratago, muinoak eta

zeruak elkar bat egiten zuten itsasora so gelditu zen denbora luzez, eta negar egin zuen kristal hartara itsatsirik, ama inoiz itzuliko zen galdetuz, desiraturuz. Begiak berriz irekitzean, itsaso hartatik igorritako izpiek hiri guztia gorritz margotu zutela konturatu zen, inoiz ikusi ez zuen bezala. Harresi eta etxe gris eta marroi haiek kolore gorria bizi hartu zuten, eta Rashak leihoa ireki eta musu eman zion amari, eta joan ez zedila eskatu zion, geldi zedila betirako hiria argituz.

Ez zuela erantzun zion amak; baina iluntzero itzuliko zela zin egin zion alaba gajoari, arratsaldero margotuko zuela gorritz Marrakex, eta bere ondoan egongo zela beti eta inoiz ez zuela ahaztuko.

Gaur egun hiria gorritz margotzen da iluntzero eta askok diote Rasha gaztearen negar hotsa entzuten dela oraindik hiria lasai dagoen egunetan, eta amak erantzun egiten diola hiria indar handiagoz argituz, eta denbora gelditu egiten dela. Batzuek magia dela diote; ez, ordea, egunero beren burua saldu behar izaten duten neskatila gazteek. Haientzat esperantza da, noizbait neskatxaren negarra irribarre bihurtuko den esperantza, hiri gorrian, guztiek itsasoa berdin ikusiko duten arrastira.